## Bertso kronika

# Andoainen bertsoa eta Angelusa

**Andoaingo Bertso Eskolak antolaturik, San Jose egunez, euskal tradizio zaharraren haritik, tartean Angelusa errezatuz, Arrate pilotaleku apainean sei bertsolari gipuzkoar izan ziren kantari.**

LAXARO AZKUNE / **ANDOAIN**

Ohi bezala agurrekin hasi zen, eta Sebastian Lizasok, gehienetan ertzean jartzeko ohitura duenez, ia beti bezala berak hasi behar izan zuen kantatzen. Martin Rezabal 'Olaso-ren' agurra aukeratu dugu muestra gisa:

*Ezer baino le(he)n nijoa orain*
*egun on bat ematera.*
*Joxe guztiak zoriontzeko*
*oraintxe daukat aukera.*
*Gaijartzailea ronda ordaintzeko*
*prestauta etorri ote da?*
*Konturatu gabe iritxi gera*
*udaberrian atera,*
*San Pedrok arte kanta dezagun*
*kukuarekin batera.*

Angelusa izan genuen ondoren, Iñaki Agirre apaizak errezatua. Bertsolariak izan ziren ondoren hitza hartu zutenak eta Angelusa bera izan zen gaia:

Sebastiabek: *«Ikusiko da ia otoitzak / indarrik badun edo ez»*; Euskitze desafiorako ere ia prest agertu zen: *«Seiron artean ezetz asmatu / Aitagure bat esaten»*.

Olasok Sebastianen purua gogoratu zuen, errezo ordurako ez zela egokia esanez. Egañak intzentsuaren lekurako zela zioen. Peña txapeldunak, berriz, abenduaren 22koa bota zigun: *«Angelus ez nuen errezau baina / txapela neuk jantzi nuan»*.



**Gipuzkoako Txapelketako finalean kantatutako sei bertsolari aritu ziren Andoainen San Jose egunez.** XOFOR

Ondorengoek ere gisa horretan jarraitu zuten baina bi aukeratu ditugu.

Olasok:

*Ta txapelduna ez da aurkitzen*
*bere txapelaren damuz.*
*Errezoaren indarra etzun*
*baizik faboriton erruz.*
*Egun harretan geroni ere*
*harritu giñaden erruz.*
*Angelusikan ez daki horrek*
*baizik bera da Angelus.*

(Anjel Mari deitzen bait da, noski).

Egañak:

*Erlijioan gaia guretzat*
*ez da goxo ta leguna,*
*Apaiz bat degu Angelusakin*
*bastante luze jarduna.*
*Eta gainera ondoan degu*
*Gipuzkuko Txapelduna,*
*gaia Afrika jarrita ere*
*txapela aitatzen duna.*

Hurrengo saioan sagardotegiko giroan izan ziren, Euskitze eta Sebastian bertsolariak eta Peña ertzaina. Saio honetan Peñaren bertsoari Sebastianek emandako erantzuna gustatu zitzaidan bereziki. Peñak: *«ekarri dokumentuk, / ekarri karneta, / kendu egingo dizut / mozkorra zaude ta»*.

Sebastianek:

*Le(he)n gurekin genduen*
*hainbeste egarri*
*ta sagardo freskoa*
*aukerako jarri.*
*Ertzaina karnet eske*
*ibiltzen da sarri.*
*Ez didazu kenduko*
*ez baitet ekarri.*

Asko gustatu zen beste saioa Egaña eta Peñagarikanorena izan zen. Gaia ere originala zen eta bertsolariek ongi asmatu zuten: Egaña, Jose Luis Moreno sabeliztun edo bentrilokuoa eta Peña berè muñekoa. Egañak dotore zirikatu zuen muñekoa, eta egundokoak esan erazi ere bai: *«Erreala da mundu guztiko / futbol talderik onena»*, eta Euskitze dela «urrezko solteroa». Hirugarren galdera gehiegizkoa izan zen ordea, jendearen aurrean aitortzeko eskatu baitzion *«aurten Gipuzkun txapeldun gisan / Egaña behar zuela»*.

Peña muñekoak honela kantatu zuen:

*Ezin da a(ha)ztu abenduaren*
*hoitabigarren eguna.*
*Izugarria ez al zan izan*
*honek egin zun jarduna.*
*«Gaia Afrika jarrita ere*
*txapela kantatzen duna».*
*Aizu Jose Luis, ez al dakizu*
*Peña dala txapelduna?*

Aurretxoan Egaña Peñari arrazoi hori botata bait zegoen. Peñak oroimena eta erreflejo onak erakutsi zituen bertso honetan.

Bakarkako lanetan Egañak orkestako zuzendari gisa bere lagunei emandako musika tresnena izan zen politenetakoa. Horretan, berriz, honako hauek aipa daitezke: Sarasuari botatakoa *«Gure txikia izan diteke / zuzendariaren batuta»*; eta Sebastiani botatakoa: *«haize musika ondo jotzen du / aurretik eta atzetik»*.

Gainerako saioetan ez zen luzimendu gehiegirik egon. Bertso bat nabarmendu nahi nuke hala ere, Jon Sarasuak botatakoa. Euzkitze eta biak aiton-amona ziren, ispilu aurrean larrugorrian. Gai gordin xamarra izan arren nahiko fin aritu ziren:

Euskitzek: *«Gaur behintzat ezin berotu leike / kalefazioik ezian»*.

Sarasuak:

*Nolanahi ere egoera hau*
*ez dut sentitzen arraro,*
*biok batera denborarekin*
*aldatu gera zeharo.*
*Kiskaldu zaizu ogia eta*
*labea hoztuta dago*
*ta hala ere gaur maite zaitut*
*sekula baino gehiago.*



**Jende asko bildu zen, bertsolariak txalotzeko prest.** XOFOR

### Fitxa teknikoa

**Bertsolariak**: Sebastian Lizaso, Xabier Euskitze, Martin Rezabal 'Olaso', Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua.
**Aurkezlea**: Jose Manuel Oiartzabal.
**Lekua**: Andoaingo Arrate pilotalekua.
**Eguna**: Martxoak 19, osteguna, San Jose eguna.
**Ordua**: Goizeko 11.30etan zuen ordua, eta 20 minutuko atzerapenez hasi zen.
**Iraupena**: 85 minutu.
**Entzuleak**: 1.000 inguru. Gazte ugari. Oso giro ona.
**Antolatzailea**: Andoaingo Bertso Eskola, Udalaren laguntzaz. Ongi prestatua. Megafonia ere ongi.

### Ez zen kalterako gertatu Angelusa

L. A. / **ANDOAIN**

Oro har bertso saioa balekotzat jo dezakegu. Izan zituen tarte oso politak, hemen adierazten saiatu garenez, baina izan zituen une hotz xamarrak ere. Angelusaren ondoren bertsolariek erakutsi zuten freskurak saio bikainagoa iragartzen zuela zirudien baina beti ez da asmatzen. Jendea oso animosoa zegoen, bertsolariak txalotzeko gertu, eta baita ateraldi borobilik zenean ongi asko jasotzen zuena ere.

Betiko dilema dugu aurrean, gaiek ala bertsolariek, zerk hutsegin ote zuen? Erantzuna dakienak hatza jaso dezala.

Amaieran bertsolari bat baino gehiago bazen bere ihardunaz nahiko haserre. «Ez duk saio ona izan», «ez nian ezer itxurazkorik sortzen» eta antzekoak esan zizkiguten.

Sebastianen eta Peñaren agurrei kaso eginez, Angelusak ez zuen nonbait etekin handiegirik ekarri bertsolarien irudimenera. Berari zor zaio ordea saioan eskainitako gairik emankorrena. Ez zen ba kalterako gertatu egun horretan.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

31 x 10 mm
EGUN BAT 480pta/21l
ASTEBETE 2.400 pta/104l
BI ASTE 4.100 pta/180l
HILABETE 6.300 pta/275l

31 x 15 mm
EGUN BAT 960 pta/42l.
ASTEBETE 4.750 pta/208l.
BI ASTE 8.300 pta/360l.

ALTZA
MONPAS
ORTZADAR
RIKARDO ARREGI
euskaltegiak
DONOSTIA - ERRENTERIA
ALTZA herria - 39 43 77
MONPAS - 27 27 11
ORTZADAR - 52 66 57
URUMEA
R. ARREGI - 46 46 55

31 x 33 mm

31x33
MODULOA
EGUN BAT 1.925 pta/84l
ASTEBETE 9.550 pta/416l
BI ASTE 16.550 pta/720l
HILABETE 23.250 pta/1.010l

31 x 33ko
BI MODULO
EGUN BAT 3.850 pta/168l
ASTEBETE 19.100 pta/832l
BI ASTE 33.100 pta/1.440l
HILABETE 46.500 pta/2.200l

31 x 33ko
LAU MODULO
EGUN BAT 7.725 pta/336l
ASTEBETE 38.300 pta/1.664l
BI ASTE 66.250 pta/2.880l
HILABETE 92.900/4.040l